

EAEko IRAKASLEAK

IKASTURTE HASIERAKO ESLEIPENAK (IKHA / COCU)

Karrerako funtzionarioak eta salbuespenezko egonkortze-prozesuan hautatuak:

Esleipena burutzerako garaian, oposizioa gainditutako espezialitate bakoitzak ahalbidetu ditzakeen lanpostu desberdinen zerrendak argitaratu dituzte:

- [Karrerako funtzionarioak.](#)
- [Salbuespenezko egonkortze-prozesuan hautatuak.](#)

Salbuespenezko egonkortze-prozesuan hautatuak:

Hizkuntza-eskakizunaren akreditazioa EAEko [Hezkuntza Sailean jasota ez duten pertsonen zerrenda](#) argitaratu da. Hautatutakoen behin betiko zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 20 egun naturaleko epean, alegatutako hizkuntza-eskakizuna dutela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Salbuespenezko egonkortze-prozesuan hautatuak eta ordezkogaiak:

Lan-egoera aldatzea. Ikasturte hasierako esleipentan parte hartu behar dutenek, lanerako prest egoerean ez badaude, HEZIGUNEA atariaren bidez **lanerako prest egoeran jarri behar dira. Azken eguna ekainaren 16ko 14:00ak arte.**

HITZALDIAK: urtero bezala, prozesua azaltzeko eta zalantzak argitzeko hitzaldi irekiak antolatuko ditugu hiru lurraldeetan. Datorren hastean datak eta izen emateak argitaratuko ditugu.

ADINAGATIK IRAKASTORDUAK MURRIZTEA

Behin betiko ebazpena, ekainaren 9an argitaratu zen. Ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik aurrera.

OHARRA: Behin-behineko zerrendari erreklamazioa jarri eta ezezkoa jaso dutenek, gurekin harremanetan jarri gorako helegiteak aurkezteko.

HEZIKETA BEREZIKO HEZITZAILEAK

IKASTURTE HASIERAKO ESLEIPENAK (IKHA / COCU)

Ekainaren 19an IKHA prozesua deitzeko ebazpena agitaratuko da. Horrez gain, infomazio gehigarria ere aterako da; prozesuaren gida, parte-hartzeko egoerari buruzko informazioa, lurralde historikoak aldatzeko aukera.

**UDAKO KOBRAKETAN
ATZERAPAUSORIK EZ!!!**

www.steilas.eus